

ELEKTRA ETA ROCA ENPRESEN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Elektra eta Roca enpresak Donostian geratzearen inguruko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko martxoaren 10ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian, 2013. urtean, Udal Gobernuak Zardoya-Otis enpresarekin harremanetan hasi zen, haren produkzioak Donostian jarrai zezan. Hiru urteren ondoren, Udal Gobernuak akordioa itxi du. Enpresen deslokalizazioak lehen mailako arazoa izaten jarraitzen du, ordea.

Antzinako plan berezia dela-eta, Roca eta Elektra enpresek beren eraikuntzak utzi beharko dituzte, eta plan bereziaren promotoreek beste lurzoru bat eskainiz edo dirutan konpentsa ditzakete hauek galtzen dituzten instalazioak. Gure ustez, Donostiako Udalak bi enpresa hauek gure hirian jarrai dezaten apustua egin beharko luke.

Jakin badakigu egoera eta errealitate desberdinez ari garela, Zardoya-Otis eta Elektra-Rocaren kasuetan, baina Udal Gobernuaren apustuak irmoa izan behar du.

Iazko apirilean, batzordean, galdera bat aurkeztu genuen gai honen harira, baina ez genuen taxuzko erantzunik jaso; hau da, Udal Gobernuaren benetako lanketa falta agerian geratu zen. Hori dela-eta, maiatzeko udalbatzarrean, mozioa aurkeztu genuen, aho batez onartu zena, enpresa hauek gure hirian geratzeko helburuarekin. Hamar hilabete pasatu eta gero mozioa ez da gauzatu.

Aurtengo apirilean zinegotzi-ordezkariek akordiorik ez dela lortu onartu du; Elektrak Eskuzaitzeta joatea ondo ikusten duela, baina Roca enpresarena ez duela hain garbi ikusten.

Enpresak ez deslokalizatzeko edota berriak erakartzeko Udalak plangintzarik ez izatea argi ikus daiteke; bi enpresa hauen kasua adibide gisa har dezakegu.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du.

MOZIOA

1-Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari plangintza bat landu dezala, Donostian deslokalizazioak saihesti eta enpresa berriak erakartzeko gaitasuna izan dezan

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia